

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4097

*1500/2025 EBAZPENA, irailaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Betetzeko zailak diren lanpostuen EPEko lehiaketa-sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, medikuaren kategorian (psikiatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 540/2025 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren betetzeko zailak diren lanpostuak 2025. urtean hornitzeko estatutupeko langile finko bihurtzeko lehiaketa-deialdiaren oinarri orokorrak (2025eko apirilaren 3ko EHAA, 65. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 27ko 543/2025 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lehiaketa-sistemaren bidez lortzeko hautaketa-probak arautuko zituzten oinarri espezifikoak fakultatibo mediko eta teknikoaren lanbide-taldeko medikuaren kategorian (psikiatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan (2025eko apirilaren 3ko EHAA, 65. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 23ko 1499/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin da Betetzeko zailak diren lanpostuen EPEko lehiaketa-sistemaren bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena medikuaren kategorian (psikiatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bat etorri martxoaren 27ko 540/2025 Ebazpenaren 12.1 oinarrian xedatutakoarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da), hautatutako izangaien behin betiko zerrendako I. eranskineko esleipendunak estatutupeko langile finko izendatuko dira, eta medikuaren kategoriako (psikiatriako FEM lanpostu funtzionala) destinoak esleituko dira, webgunean argitara daitezkeen. Hortaz, langileen arloan indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea Betetzeko zailak diren lanpostuen EPEko lehiaketa-sistemaren eranskineko esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla medikuaren kategorian (psikiatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek 2025eko urriaren 2an hartuko dute destinoaren jabetza.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko dute destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak hitzordua eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean

nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Espainiako nazionalitatea ez duten eta parte hartzeko eskubidea duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko dute, bai eta, beste estatu bateko nazional batekin lotura badute, harekin ahaidetasun-lotura dutela eta haren kontura bizi direla edo haren kargura daudela egiaztatzen duten dokumentuak ere. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, non azken horrek adierazten duen ez dagoela ezkontidearengandik legez bananduta eta, hala badagokio, izangaia haren kontura bizi dela edo haren kargura dagoela.

– Elkargokide izatearen ziurtagiria, deialdiaren oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako desgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako estatuari buruzko aitortpenaz gain, zinpeko adierazpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez daudela desgaituta edo egoera baliokidean, eta ez dutela diziplinazko zehapenik edo baliokiderik beren estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten dienik.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa, eta, horrez gain, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Lanpostua jabetzan hartzeko ezarritako egunean aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, ez badira bertaratzen lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion egunean edo, hala badagokio, emandako luzapenean, galdu egingo dutela hautaketa-proben ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Azaldutakoaren arabera lanpostuaz jabetzen diren izangaiek dagokion zerbitzu sanitarioetako erakundean hasi beharko dira lanean, eginbidea bete eta hurrengo egunean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 17. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

2025eko urriaren 1a, asteazkena

ERANSKINA  
DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA  
FAKULTATIBO ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA  
TXANDA IREKIA LEHIAKETARAKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***0753**	Hernandez Sanchez, Ana Isabel	Gipuz. Os. Mentaleko Sar. / Osasun Mentaleko Sarea- Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Erreteriariko OMZ-Erreterria / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitat-Helduak/Adikzioak- Osasun Mentaleko Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00- 15:00-Ez espezifikoko gehiago	2
***4014**	Rincon Garces, Talia	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea- Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Barakaldoko OMZ - Adikzioak- Barakaldo / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2
***9099**	Abou-Ghalioum Aramberri, Itoiz	Gipuz. Os. Mentaleko Sar. / Osasun Mentaleko Sarea- Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Arrasateko OMZ- Arrasate/Mondragón / Martuteneko OZ - Espetxea-Donostia/San Sebastián / Arreta - Helduak-OSU helduak/Adikzioak/OMU espetxea-OM Unit-Held/Adikz/Espetxea / Goizez-Goizez 08:00- 15:00-Ez espezifikoko gehiago	2 2023-12-03
***7076**	Goti Elejalde, Javier	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea- Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Algortako OMZ-Getxo / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2
***1820**	Cano Baena, Ana Isabel	Arab. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Kom.-Amb. Arreta - Eguneko Arreta-Bitarteko egiturak / Mendekotasunen Orientazio eta-Vitoria-Gasteiz / Zaballako OZ - Espetxea-Iruña Oka/Iruña de Oca / Arreta - Helduak, haurrak eta nerabeak-OMU espet/Orient. eta adik. tratam. unit-OMU espet/Orient. eta adik. tratam. unit / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2

2025eko urriaren 1a, asteazkena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***3917**	Hervella Garces, Maria Isabel	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Barakaldoko OMZ-Barakaldo / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2 2025-12-03
***4291**	Aller Gomez, Noelia	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Julian Ajuiriagera OMZ-Bilbao / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2
***2584**	Rodriguez Millan, Julia	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Zallako OMZ-Zalla / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2
***7739**	Lopez de Munain Blanco, Maria Estibaliz	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Durangoko OMZ-Durango / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2 2021-12-03
***2660**	Angoitia Bernaola, Ihintza	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Portugaleteko OMZ-Portugalete / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2 2020-12-03
***9717**	Montoro Lopez, Juan	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Eguneko Arreta / Bitarteko Egiturak / Gernikako Eguneko Ospitalea-Gernika-Lumo / Ermuko Eguneko Ospitalea-Ermua / Durangoko Eguneko Ospitalea-Durango / Basauriko Eguneko Ospitalea-Basauri / Arreta - Helduak-Eguneko Arreta-Eguneko Arreta / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2 2021-12-03
***9008**	Ramos Calvo, Laura	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Galdakaoko OMZ-Galdakao / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2 2018-06-20